

Lege-aholkularitzako zerbitzu berria GEBEn

Arantxa Izagirre abokatuak elkartean hartuko ditu bazkideak, astelehenetan hitzordua eskatuta

Gipuzkoako Baso Elkartek (GEBE) aholkularitza juridikoko zerbitzu berri bat jarri du martxan bere bazkideei laguntzeko Arantxa Izagirre abokatuaren eskutik (LEGEZ Abogados, Tolosa), eta astelehenetan, 14:30etik 18:30era, hala eskatzen duten bazkideei emango die arreta, GEBEren Tolosako bulegoetan. Zerbitzua maiatzaren 3tik dago martxan.

Udal-ordenantzak, hiri-antolamenduko planak, lurretarako sarbideengatiko gatazkak, parke naturalei, bideei, fauna exotiko eta mehatxatukoei edo eskriturei buruzko era guztietako araudiak... Guri eragiten digun basogintzako edozein gai.

Lehenengo kontsulta doakoa izango da, gure bazkideengan eragina duen edozein gairi buruzkoa. Aldez aurretik hitzordua hartu beharko da, elkartean eskatuta, telefonoz (943 652 920) edo posta elektronikoz (gipuzkoa@basoa.org).

Hitzordua eskatzeko unean, adierazi, mesedez, jorratu beharreko gaia, abokatuak gaiak prest eraman ahal izan ditzan eta elkartean astelehenetan aurrez aurreko kontsultak eraginkorragoak izan daitezten.

GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA